

Zarauzko Udala

Parekidetasun Departamentua

Dirulaguntzak norgehiagoka araubidez emateko deialdia

2023. urtea

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK :

Zarauzko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Aarutzailea (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2022ko otsailaren 21ekoa, 34 zk.)

Zarauzko Udaleko Parekidetasun Departamentuko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (2023ko martxoaren 15eko Gipuzkoa Aldizkari Ofiziala, 51 zk.).

1. Helburua:

Deialdi honen helburua da Parekidetasun Departamentuak era estrukturalen garatzen dituen jarduera, programa eta proiektuen osagarri direnak egiten dituzten pertsona fisikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo elkarteei norgehiagoka araubidez emango zaizkien dirulaguntzen prozedura arautzea, bikoiztasunak berariaz saihestuz. Adibidez, honako hauek:

- Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatu eta bultzatzea eta haien arteko desberdintasunak gainditzea.
- Zarauzko emakumeen asoziazionismoa sustatzea eta sare instituzional, sozial eta kulturalen haien parte-hartzea indartzea.
- Zarauzko herritarrak eskubide eta aukera berdintasunaren arloan sensibilizatzea eta kontzientziatzea.
- Emakumeen parte-hartze aktiboa nahiz emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bultzatzeko jarduerak sustatzen dituzten erakundeen sorrera bultzatzea.
- Ikerketa, sensibilizazio eta dibulgazioko jarduerak egitea, aukera berdintasunaren inguruan eta emakumeen eskubideen sustapen eta defentsaren alorrean.
- Emakumeen aurkako biolentzia prebenitzeko eta desagerrarazteko, biktimen eskubideak defendatzeko eta horien susperraldi pertsonala eta normalizazio soziala bultzatzeko jarduerak egitea. Udalak sustatzen dituen jardueren osagarri izango dira jarduera horiek.
- Erantzukizun pertsonalen, familiarren eta profesionalen arteko kontziliazioaren beharraz sensibilizatzeko eta kontziliazio-neurriak sustatzeko jarduerak egitea.
- Emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera-berdintasuna bultzatzeko beste jarduera batzuk egitea.

Deskribatutako jarduerak eta/edo ekintzak diruz lagundu ahal izateko, aurkeztutako proiektua Zarauzko herrian garatu eta egin beharko dute, eta ekintzok ez zaizkie elkarte edo erakunde sustatzailearen kideei bakarrik zuzenduko.

Diruz lagunduko dira 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra egindako jarduerak.

2. Onuradunak

Dirulaguntza hauek pertsona fisikoek eta irabazi-asmorik gabeko elkarteek eskatu ahal izango dituzte; legearen arabera eratuta eta dagozkien erregistroetan inskribatuta egongo dira, beren IFZ izango dute, eta Zarautzen edukiko dute beren egoitza edo ordezkaritza iraunkorra eta diruz lagundutako jarduera edo programa Zarauzko udalerrian garatuko dute.

Salbuespen gisa, udalerrientzat interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Zarautzen ordezkaritza ofizialik ez izan.

3. Onuradun izateko debekua

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoen erakundeak:

- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzenak, 13 artikuluan zerrendatutako edozein.
- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak ezarritakoari jarraiki, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

Erakundeak, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezake onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez dagoela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien ordezkariak, erantzukizunpeko aitorpenarenak aurkez daitezke.

4. Diruz laguntzeko gastuak

Gastu hauek dira diruz laguntzeko modukoak: diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak, eta deialdian jarritako epean egiten direnak.

Dirulaguntzaren deialdian zehaztutako justifikazio-epea bukatu aurretik egindako ordainketa hartuko da gastutzat. Diruz lagun daitezkeen gastuen erosketa-prezioa inoiz ez da izango merkatuko balioa baino handiagoa.

5. Eskaerak

Eskabideak Zarauzko Udalean aurkeztuko dira eta I. Eranskinean ageri den eredu ofizialari jarraiki egingo da. Dirulaguntza jaso nahi duten proiektuak II. Eranskineko inprimaki ereduari jarraiki aurkeztuko dira.

Eskaerak eta dokumentazio guztia nahitaez Internet bidez aurkeztu beharko da Zarauzko Udaleko Zerbitzu Telematikoaren bidez, hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskabidearekin batera honako dokumentazioa aurkeztuko da:

- Elkarteko eraketa-eskrituraren eta estatutuen kopia.
- Erakundearen Identifikazio Fiskaleko Kodearen eta eskatzailearen NANaren kopiak.
- Erakunde eskatzailea dagokion erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duen dokumentuaren fotokopia.
- Diruz lagundua izatea nahi den proiektuaren, jardueraren edo programaren jatorrizkoa, entitate eskatzailearen organo eskudunak onartutakoa (II. eranskina).
- Programaren gastuen (kontzeptua eta zenbatekoak) eta sarreraren (jatorria eta zenbatekoa) aurrekontua (III. eranskina).
- Jardueraren hedapenean aurreikusitako euskararen tratamendua, dagokion inprimakia beteta (IV. eranskina).
- Erantzukizunpeko adierazpena, beste departamentu, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, emanda daudenak jasotzen dituenak. (V. eranskina).
- Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunaren zerga-betebeharrak eta Zarauzko Udalekoak egunean dituela, eta onuradun izateko debekutan – Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13.

artikuluan adierazitakoak— sartuta ez daudela frogatzeko erantzukizunpeko adierazpena (VI. eranskina).

Horretarako, ez da beharrezkoa izango interesdunaren adostasuna, eta administrazioak, bere eskumenak baliatuz, beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahal izango ditu datuen zehaztasuna egiaztatzeko eta bere esku dauden edo beste edozein administrazioak egin dituen dokumentuak kontsultatu eta biltzeko.

- Erantzukizunpeko aitortpena, adierazten duena, batetik, sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminaziorik ez dela egiten kideak aukeratzeko prozesuan ezta lan-jardunean ere, eta bestetik, administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ezarrita eta indarrean ez duela sexuagatik diskriminazioa egin izanagatik, ez sexu-delituengatik (VII. eranskina).

Eskatzen diren agirietakoren bat Zarauzko Udalaren esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzaileak erabil dezake urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.3 artikuluan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

Eranskinak eskuragarri daude Zarauzko Udaleko web-orrian (www.zarautz.eus).

Eskaera-orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriek akatsen bat badute edo osatu gabe baldin badaude, erakunde eskatzaileari hamar egun baliouduneko epea emango zaio akatsok zuzentzeko, urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan jarritakoaren arabera; eta gainera adieraziko zaio, hala egiten ez badu, bere eskaera bertan behera uzten duela pentsatuko dela, lege horrek berak 21 artikuluan jasotakoaren arabera.

Eskariak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

6. Elkarte onuradunen betebeharrak

Hauek dira erakunde onuradunaren betebeharrak, eranskinetan jasotakoez gain:

- Dirulaguntzaren oinarrian dagoen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izango du.
- Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatuko du betebeharrak eta baldintzak bete dituela, jarduera egin duela eta bete dituela dirulaguntza emateko edo gozatzeko bete beharreko helburuak.

- Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortuko ditu.
- Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartu eta haiek egiten lagunduko du, indarrean dagoen araudiaren arabera; era berean, kontrol-organoek egindako egiaztapen eta kontrol finantzieroko beste edozein jarduera ere onartu eta egiten lagunduko du; eta aurreko jarduerak egiteko eskatzen zaion informazio guztia emango du.
- Emakidaren ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarenak egunean dituela egiaztatuko du.
- Erakunde eskatzaileak bere eskaeran baimena sartu ahal izango du, organo emaileak ziurtagiri telematikoen bidez lor dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztapena; eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.
- Urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2. artikuluan eskubidea aitortzen die herritarrei, lehendik Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko. Hortaz, Zarauzko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeke, tokiko erakundeak berak espedienteari erantsiko zaion ziurtagiri bat egingo du.
- Kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa den merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatutako baldintzetan.
- Hartutako fondoan aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, lau urteko epean gordeko ditu, egiaztapen- eta kontrol-jardueren aztergai izan daitezkeelako.
- Organo emaileari jakinaraziko dio, hala badagokio, nazioko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabide batzuk lortu izana.
- Dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraziko du.
- Jasotako fondoak itzuliko ditu, ordenantza orokorrean aurreikusitako kasuetan.
- Diruz lagundutako jardueraren zabalkunde-ekintzetan, Zarauzko Udalak diruz lagundutakoa dela adierazi beharko da.
- Jarduera egitean, pertsonen oinarritzko eskubideak eta indarrean dauden legeak errespetatuko dira.

Euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko udal araudiaren arabera, ondorengo irizpideak jartzen dira:

- Diruz lagundutako jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera. Jarduerak euskaraz edo ele bitan egingo dira. Mezu idatziak (kartelak, esku-orriak, gonbidapenak, deialdiak, publizitatea...) eta ahozko komunikazioak (aurkezleak, hizlariak, musika...) gutxienez euskaraz egingo dira, eta, ele bitan eginez gero, euskarari lehentasuna emanda. Diruz lagundutako jarduera euskaraz egiten bada, euskaraz idatzi eta ezagutaraziko da.
- Haur, nerabe eta gazteentzat bereziki antolatutako jarduera guztiak euskaraz egingo dira. Euskararen erabilera bermatuko da arlo guztietan, hedapenean eta jarduera bera gauzatzerakoan.
- Dirulaguntzaren onuradunak hizkuntzaren tratamendua aurreikusi egingo du hirugarrenekin zerbitzuak kontratatzerakoan edo honakoak egiterakoan: bilerak, hitzaldiak, jendaurreko ekitaldiak, idatzizko komunikazioa (informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharra...), megafonia, web-orria, WhatsApp-taldea...
- Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera ondorengo baldintzak jartzen dira:

- Elkartearen estatutuetan, kideak onartzeko prozesuetan eta haren funtzionamenduan ezingo dute diskriminaziorik egin sexua, ideologia, jatorri etnikoa, nazionalitatea edo sexu orientazioagatik.
- Programan edo jardueran genero ikuspegia txertatuko dute, kontuan izanda gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla.
- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazio barneratzailea erabiltzea. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatzea.
- Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak ematea (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).
- Antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izatea.

7. Hautapen eta balorazio irizpideak

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

- Proiektua testuinguruan kokatzea eta bere kalitatea: gehienez 50 puntu.
 - Aurreanalisi eta proiektuaren beharren justifikazioa.
 - Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna.
 - Proiektuaren arduradunen eta/edo betetzailen espezializazioa eta/edo esperientzia profesionala berdintasunean.
 - Programa edo jardueraren helburuak eta edukiak egokiak izatea emakumeen eskubideak defendatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko, eta/edo indarkeria sexista ezabatzeko.

- Proiektua berritzailea izatea; sentsibilizazioaren eta/edo prebentzioaren arloan ikuspegi eta/edo estrategia berriak proposatzea: gehienez 10 puntu.

- Proiektuaren kostuaren eta onuradun kopuruaren artean koherentzia izatea: gehienez 5 puntu.

- Zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako, ezberdinkeria handiagoko egoeran daudenentzako eta/edo diskriminazio edo bazterkeria egoeran daudenentzako proiektuak izatea (emakume atzerritarrak, zaintzaileak, etxeko langileak, dibertsitate funtzionala dutenak...): gehienez 5 puntu.

- Dirulaguntza jasotzen duten elkarten ardura-postuetan eta erabakitze organoetan emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea: gehienez 5 puntu

- Dirulaguntza jasotzen duten elkarten osaeran emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea: gehienez 5 puntu

- Taldean eta sarean egiten diren proiektuak eta prozesuak izatea, eta esperientzien trukaketa bultzatzea: gehienez 10 puntu.

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko edo/eta indarkeria sexista ezabatzeko politiken edo jardueren garapenean egindako ibilbidea, edo/eta Berdintasunerako Udal Kontseiluan aktiboki parte hartzea eta Parekidetasun Departamentuarekin lankidetzan aritzea: gehienez 6 puntu.

- Jarduera euskaraz hutsez gauzatu eta zabaltzea: gehienez 2 puntu

- Euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzea, bai jardueraren garapenean, bai entitatearen barne funtzionamenduan: gehienez 2 puntu

8. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza hauen banaketa norgehiagoka araubidez tramitatuko da.

Aurkeztutako proiektu bakoitzeko dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo ditu 3.000 euro gainditu.

Baldin aurrekontu-kontsignazio eskuragarriarekin, eskatutako zenbatekoen zati bat estaltzeko soilik iristen bada, emandako zenbatekoak proportzionalki banatuko dira, baldintza berdinetan, onartutako dirulaguntza guztien artean.

Emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabiderekkin.

Erakunde onuradunak jakin bezain laster adierazi beharko du diruz lagundutako jarduera finantzatzeko dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabide horiek lortu dituela (zenbatekoa ere bai), eta, nolana ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du inoiz gainditu –bakarka zein beste administrazio publikoek xede berarekin emandakoekin batera – diruz lagundutako obra edo jardueraren kostua.

9. Zuzkidura eta aurrekontuko partida

Deialdi honen bidez dirulaguntzak emateko zenbatekoa gehienez ere 12.840,00 eurokoa da, eta aurrekontuko 1301.481.01.231.50 partidari egotziko zaizkio.

10. Instrukzioa eta proposamena

PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOan araututakoaren arabera egingo da instrukzioa eta proposamena.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Parekidetasun Departamentuko arduraduna.
- Balioespen Batzordea: Kide anitzeko organo bat, Herritarren arloko Informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan, une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi bateko eskuordetzei jarraiki.

11. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 39/2015 Legeak 82. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da. Dena den, prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren tramitea egin beharrik izango.

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdia argitaratzen denetik. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, pertsona edo entitate eskatzaileek ulertu ahal izango dute beren dirulaguntza-eskaerak ezetsi egin direla.

Pertsona edo elkarte interesdunei erabakiaren berri emango zaie, urriaren 1ko 39/2015 Legeak 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Emandako dirulaguntzak argitaratuko ditu Udalak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak 18. artikuluan jarritakoaren arabera.

12. Dirulaguntzaren erabilera justifikatzea

Erakunde onuradunak hauek guztiak justifikatu beharko ditu: aurkeztutako proiektuaren % 100, dirulaguntzaren erabilera, jarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla.

Justifikatutako gastuak aurkeztutako proiektuaren % 100 baino txikiagoak badira, portzentaje berean murriztuko da emandako dirulaguntza.

Justifikazio-kontuaren modalitatea erabiliko da, eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

1. Dirulaguntzaren emakidan jarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jardueramemoria bat; hor sartuko dira egindako jarduerak, partaide edo hartzaile kopurua (sexuka bereizita) eta lortutako emaitzak (VIII. eranskina).
2. Memoria ekonomiko bat (IX. eranskina), egindako jardueren kostua justifikatzeko; agiri hauek sartuko dira:
 - Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren erantzukizunpeko adierazpen bat, honakoak adierazita: pertsona edo erakunde hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak ere adieraziko dira.

- Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendako gastuen frogagiriak, edo pareko frogabalioa edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak, dirulaguntza publikoaren xedea bete dela ziurtatu ahal izateko (X. eranskina ikusi).
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten dirusarrera edo dirulaguntza guztien erantzukizunpeko adierazpena, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da – interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe – eta bi orrialdietan inprimatuta

3. Azterlan, programa, argitalpen, iragarki-kartel eta laguntza ekonomikoaren ondorioz egindako jardueran sortu den dokumentazio grafikoaren eta idatziaren ale bana.

Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa 2024ko urtarrilaren 31a baino lehen aurkeztu beharko da.

13. Dirulaguntzen abonua eta ordainketa aurreratuak

Zehaztutako dirulaguntzaren abonua bi zatitan egingo da:

- Zenbatekoaren % 70, Gobernu Batzarrak dirulaguntzaren zenbatekoa onartu ondoren.
- Zenbatekoaren % 30, erakunde onuradunak dirulaguntza erabili izanaren justifikazioa entregatu ondoren.

14. Dirulaguntzak itzultzea

Dirulaguntzak itzuli egin beharko dira oinarri espezifikoetan eta Zarauzko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako kasuetan, eta horietan adierazitako prozedurarekin bat etorritz.

15. Publizitatea

Dirulaguntzen elkarte onuradunek PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOetako 18. artikulua jasotako agindu guztiak bete beharko dituzte.

Dirulaguntzen onuradunak diruz lagundutako edozein programaren, jardueraren, inbertsioren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz.

Publizitate horretan Zarauzko Udaleko Parekidetasun Departamentuaren erakunde-irudia txertatu beharko da derrigorrez, eta baita finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere txartel, plaka oroigarri, material inprimatu, euskarri elektronikoko edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

16. Araudia

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); eta Zarauzko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokor arautzailea (2022ko otsailaren 21eko GAO, 34 zk.) eta Parekidetasun Departamentuko dirulaguntzak emateko Oinarri Espezifikoak (2023ko martxoaren 15eko GAO, 51 zk.).

17. Errekurtsoak

Deialdi honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean inpugnatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Epeak, bi kasuetan, deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen.